

gisa ikusi zituen: lurzoru eta gizarte egonkor, sendo eta gogorren sinesmena galduta zuten. Burbuila ekonomikoa lehertu eta berehalaz jazo ziren, eta mugarriz izan zen hori gerraosteko Japoniako historian. *Lurrazpian* nobela ondu zuen horrekin 1997an.

### Gurtza berriak garai berriei

Mende berriarekin idatzi zuen *gauaren sakonean* (2004) –Ibon Uribarrik 2009an euskaratua–, gauerdiko eta egunsentiko lehen argien arteko ordu txikiak buruzko istorioa. Ordu horietan, hiriko soinuak monotonoa den arren, ez da ez igotzen ez jaisten, eta pertsonen emozioak eta pentsamenduak errusiar mendi bat dira.

*IQ84-k* (2009) du Murakami-ren aurreko nobelen antzekotasun handien. Liburuko pertsonaia bakoitza bakartzearen aparteko azterketa bat da. Aomamek

### Idazteko erabakia «epifania» modura iritsi zitzaioala kontatu izan du, beisbol partida bat ikusten ari zela

denbora pasatu du apartamentu batean ezkatututa, Prousten lana irakurriz. Bizikleta estatiko batean aritu da, eta balkoian txokolatearekin eserita, Tengo protagonistan dago izar iheskor bat begiztatzeke zain.

Gasze garaiko mundua sinpleagoa zitzaien idazleari. Ez zaio iruditzen egungo mundua segurua goa denik, eta kezka handia eragiten dio gazteen buru osasunak eta itxaropenik ez izateak. Uste du salbazio bila dabilatzala, eta nahastu egiten dutela erreala dena eta ez dena.

2020ko izurria iritsi eta historia berrikusteko abagunea heldu zela erabaki zuen: bueltaketa izan zituen harrisia eta itzala. Etxetik apenas irtetzen zen, eta istorio bat idazteari ekin zion. Horren emaitza da apirilaren 13an argitaratu berri duen *Hiria eta haren zalan-tazko hormak* eleberria. 2020ko urtarrilean hasi zen idazten, eta 2022ko abenduan amaitu zuen.

Edozein horma zeharkatzearen inguruko gogoeta da, beste aldera joatearen ingurukoa; baita itzulteko prozesuaren ingurukoa ere. Haren ustez, horma mota asko baitago: kontzientea eta inkontzientea, erreala eta irrealia. Baina baita gizarteak bereizten dituen horma fisikoak, Berlinen zegoena eta Israelen eta Palestinaren artean egun dagoena. Hornek esanahi eta asmo desberdinak izan ditzaketela irizten dio, barruan daudenen arabera.

## Durduza eta engainua

### Irati Majuelo

rene Pujadasek esana da, eleberriak irakurlea bidean laguntzen duela eta ipuinak, aldiz, bakar-bakarrik uzten zaituela, zuregan ideia bat, irudi bat, lebertu ostein. Ez dakit ipuingintza osoari aplikatu dakioken hausnarketa den, bai, ordea, Garazi Arrulak argitaratu berri duen ipuin liburuari, horrelakoa baita lehen irakurketak uzten dizun gorputzaldia, ezinegon kontentut baten antzerakoa. Durduza erdiesten dute *Lurraz beste*-ko lanek, gozoa eta bihurria.

Baretasun arriskutsu batek biltzen ditu ipuinak, eguneroko eszenak abiapuntu izanda ere, aztoramen zantzuak nabaritzen baitira giroan, irakurlea adi jarrarazten duen arrotzasun deserosoaren seinaleak. Izan ere, ipuinetako pertsonaia desplazatuta ageri dira, euren ardatzetik lekualdatuta, bakoit-

tzaren bizi-eskemetan akatsak edo aldaketak hauteman baitituzte, ez egitura osoa erorarazten dutenak, baina bai lurrikara txikiak sortzen dizkietenak.



### ‘Lurraz beste’

Egilea: Garazi Arrula.  
Argitaletxea: Txalaparta.

## Hau ez da beste bat

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA


#### Imanol Mercero

Dinosauroen liburuekin jende askori entzuten zaio tope eginda dagoela. Ematen duela besterik ez dagoela, eta, hau bai etsigarria, denak igualak direla.

Eskuartearen dugun *Dinosaurio bat egunero* liburuarekin aurreiritzi hauek izan ditut abiapuntu. Jakin nahi nuen ea inguruko pertzepzio hau zenbaterainoko egia zen. Liburu bilatzaile ohikoetan arakatu dut, apalategiak arakatu ditut, eta emaitza baikorra iruditu zait. Ustea okerra da, ez direlako hainbeste, ez direlako hain igualak.

Lehenik esango dugu *Dinosaurio bat egunero* erreferentziako liburua izan daitekeela jakintza alor horretan aritu nahi

duenarentzat. Kopuruz entziklopedia ikaragarri zabal da, egin kontu, eguneko bat aipaturik, guztira 366 dinosaurio espezie deskribatzen direla. Kopurua ez eze, interesgarria izan daitekeen multzokatze sistema bat ere pro-



### ‘Dinosaurio bat egunero’

Idazlea: Miranda Smith. Ilustratzailea: Hainbat irudigile. Itzulitzailea: Rosetta T.Z. Argitaletxea: Ibaizabal.

Gizaki orok bezala, gabezia horiek disimulatzen saiatzen dira sarri, baina tartean sortzen diren arrakalak, hondakinak eta kontraesanak azaleratzen dira azkenerako. Harridura, autoengainu edo egiaztapen forman ager daiteke, baina ipuinetako protagonistek hori bera dute amankomunean, deskolokatuta sentiarazten dituen asaldura.

Gai ugari lantzen dituzte ipuinek, etxe bilaketak, maitasun harremanen higatzea, laguntasunaren ezin asmatuzko bideak, familia-egituren buruhausteak, laneko obsesioak, pandemia... eguneroko bizitzaren gorabeherak izan daitezkeenak denak. Alabaina, kontaktak nagusiaren atzean bada beti beste gai bat, elefante baten gisa gelaren erdian dagoena, baina inork aipatzen ez duena, esplizituki behintzat ez, eta, beraz, irakurlea arreta mantentzerazter behartzen duena. Esaterako, bakardadeak leku hartzen du ipuin ia guztietan, itxura desberdinetan bada ere. Hala ere, gehienetan, baka-rik dagoena ez da babesgabe sentitzen dena, harengan arreta jartzan duena baino, eta jolas horretan mugitzen dira barne-

harietako asko. Irakurleari proposatzen dion hartu-eman horretan dago liburuaren indargunea, hori bai, zenbait ipuinetan sakon arakatu behar da esan gabeko horien atzarnak aurkitzeko. Detaileak, trantzak, gezur txikiak, ipuingintzaren muinari heltzen dio horien bidez Arrulak, eta hala sortzen ditu arinkeria irakurtzeko eginak ez diren ipuinak, baizik eta lan egitekoak. Bi aldiz irakurtzeko ere bai.

Gaur eguneko kokatu ditu idazleak ipuinak, Iruñeko auzoetan, Nafarroa erdialdeko paisaietan, eta gertutasun horrek berezko kolorea ematen dio liburuari, baita hizkera ere. Izan ere, hizkuntza aberatsa eta erregristo ugari darabiltza idazleak, kaleko hizkeratik gertu zenbaitetan, estilo poetikoa baliatuz sarri. Esaldi bakoitzari garrantzia eta bizia emanaz, plazer literario handiko irudiak eta idazmoldeak lortzen ditu Arrulak han-hemenka, eta horiek ipuin bakoitzerako hautatu dituen baliabide narratiboei elkartuz, liburu interesgarria osatu du. Ausardia eta esan nahia nabari dira, eta horiek beti dira eskertzekoak literaturan.

posatzen dute, halatsu: Urtarrilean *Txikienetako batzuk* eta *Txori-imitatzaileak*, otsailen *Dinosaurio bizkorak* eta *Intsektujaleak*, martxoan *Dinosaurio ahate-mokodunak* eta *Dinosaurio-hortzak*... Nabarmenezkoa da era berean espezie bakoitzeko eskaintzen dituztela irudi naturalista bat, izen arrunta –demagun, otsailaren 29ko Kol espeziearen izen zientifikoa Kol ghuvada–, bizi zeneko garaia (Goi kretazeoa), familia (Alvarezsauridoa), dieta (haragijalea), luzera (2,3 m), pisua (20 kg.), eta kokapen geografikoa (gaur egungo Asia). Zehatza da lana, bai.

Liburuak hasieran aurkibidea du, eta segidan gaiaren sarrera egiteko azalpen (oso) labur batzuk. Amaieran desagertzen ahalpen klasikoak ematen da arinki, segidan aro bakoitzeko (triasikoa, jurasikoa, kretazikoa) animalia aipatuen zerrenda ematen da, hurrena glosarioa, eta, azkenik, aurkibide alfabetikoa.

Entziklopedia osatua, beraz, *Dinosaurio bat egunero* hau.

Merkatuaren badira dozena erdi entziklopedia gehiago, hona hemen erreferentziakoak: *Dinosaurioen garaian* (Tarttalo, 2010)

entziklopedia laburragoa da (67 or.), bere informazioa ikuspegi orokorra emateari lotuta dago. *Dinosaurioen entziklopedia* (Suasaeta, 2012) entziklopedia baldaragoa da, luzea (173 or.), baina ez oso eraginkorra. *Dinosaurioen inbentarioa, irudiduna* (Pamiela-Kalandraka, 2018) izenburuak dioen bezala, irudi izendun katalogo bat da, irudietan ahalagien berezia egin dutela nabarmentzen zaiolarik. *Wakou: Dinosaurioak* (Tarttalo, 2017), lehen irakurleentzat bideratutakoa da, ikuspegi orokorra eman nahi da, ariketa eta esperimenduak proposatzen ditu.

Beste erabilera batzuk ere eman zaizkie dinosaurioei. Esaterako, 0-4 urtekoekin marrazki erakargarrien bilduma gisa: *Dinosaurioen garaia* (Ibaizabal, 2007), baita pop-up txundigarriak egiteko aitzakia gisa: *Dinosaurioak: landa gida* (Tarttalo, 2010). Ahaztu gabe, dinosaurioa aitzakia hutsa denean, baliatzen dela narrazioak egiteko (*Rikardo eta dinosaurio gorria*, Anaya Harritz, 2007), edota abentura bildumak osatzeko: *Dinosaurioen koba* [lau aleko bilduma] (Desclée de Brouwer, 2011-2012).